

KAPITALAREN MINTEGIA

5. SAIOA

LAUGARREN ATALA

IV. kapituluaren ikusi genuen diruak erlazio sozial kapitalisten baitan kapitala bezala jardun dezan gainbalioa funtsezko kategoria dela. D-M-D' mugimenduak balorizazio prozesu bat dauka bere baitan, ez lan prozesu hutsa soilik (V kapituluak). Gainbalioaren ekoizpena den balorizazio prozesua erabilera balioaren (valor de uso) ekoizpena den lan prozesua beraren gainera ezartzen da ekoizpen kapitalistan (V eta VI kapituluak). Horregatik garatzen da gainbalioaren ekoizpena bere azken mugetaraino liburuan. Hirugarren sekzioan (V, VI, VII, VIII eta IX kapituluak) gainbalio absolutuaren ekoizpena, laugarren sekzioan (X, XI, XII eta XIII) gainbalio erlatiboarena eta bostgarren sekzioan (XIV, XV eta XVI) biena garatzen ditu, hain zuzen ere. Gaurkoan beraz gainbalio erlatiboaren ekoizpena eta bere garapen historiko konkretua izan den manufaktura aztertzen ditu (X, XI eta XII), hurrengoan makinariaren industria handian gainbalio erlatiboa nola ekoizten den azalduz (XIII).

X. KAPITULUA. GAINBALIO ERLATIBOA KONTZEPTUA

Orain arte hirugarren sekzioan gainbalio absolutua aztertu denean langilearen erreproduktorea bideratutako lanaldiaren (jornada laboral) zatia emana zegoen. Hau da, beharrezko lanaren (trabajo necesario) zatia ezin zen aldatu, beraz ezinezkoa zen gainbalioa ekoiztera bideratutako lanaldiaren gainerako zatia handitzea lanaldia bera luzatu gabe. Marxek luze eta xehetasun handiz garatzen du lanaldia luzatzeko (gainbalio absolutua handitzeko) borroka hau VIII kapituluaren. Laugarren sekzio honetan aztertzen den gainbalio erlatiboaren ekoizpenean aldiz lanaldiaren iraupena emana egonik beharrezko lanaren zatia murriztuz handitzen da gainbalioa ekoiztera bideratutako denbora. Beharrezko lanaren zatia murrizteko modu hau langilearen erreproduktorearen kostua murriztea litzake. IV. Kapituluaren ikusi genuen bezala, langileak bere erreproduktoreko balioa ekoiztera bideratzen duen lanaldiaren zatia beharrezko lana) bere erreproduktoreko beharrezkoak dituen merkantzien kostua da. Ideia hau ez da Marxena bakarrik, bera baino lehenagoko ekonomia politiko klasikoko autoreak aipatzen ditu ideia hau defendatzen (W Petty, Turgot...). Lehen kapitulutik merkantziak bere balioan (Sozialki beharrezkoa zaien denboran, TTSN) saltzen direla suposatzen dugunez, merkantzia horien balioa (Sozialki beharrezkoa zaien denbora) murriztea litzake beharrezko lanaren zatia murrizteko bidea. Merkantzien balio hau murrizteko modua, gainbalio erlatiboa ekoizteko oinarria, ekoizpen indarra (fuerza productiva) handitzea litzake; merkantzia bakoitza denbora laburragoan ekoiztea alegia (maila sozial batean, ez lan konkretuan (trabajo concreto)).

Demagun langile batek 8 orduz egiten duela lan (lanaldia). Langile horrek lanera itzultzeko janaria (2 orduko lanaren balioa) eta arropa (2 orduko lanaren balioa) erosi behar dituela. Langile horrek 4 ordu igaroko ditu bere "soldata" ekoizten eta beste 4 ordu kapitalistarentzako gainbalioa ekoizten. Kapitalistak gainbalio gehiago ekoiztea nahi badu bi aukera ditu: gainbalio absolutua handitu (lanaldia 9 ordura luzatzen bada eta langilearen erreproduktorea garestitzen ez bada gainbalioa 5 orduz ekoiztiko du) edo gainbalio erlatiboa handitu (arropa 2 orduko lanarekin ordez ordu bakarreko lanarekin erosi badaiteke 3 ordutan beharrezko lana amaituta legoke eta 5 ordu igaroko litzake gainbalioa ekoizten).

Marxek adierazten du ekoizpen modu kapitalista adar produktibo (sektore) ezberdinetan sartzen doan heinean horiek bere lan egiteko modu "artisauek" edo arkaikoan hartzen dituela. Horren ondorioz hasiera batean gainbalio absolutua izan ohi da kapitalistek lehiatzeko duten modua. VIII kapituluaren ikusi genuen bezala, Estatuak kapitalista bakoitzaren berehalako interes partikularraren

gainetik klase kapitalistarena ezartzen du eta gainbalioa absolutuaren bidea mugatu. Ondorioz kapitalistek gainbalio erlatiboaren bidea hartu behar dute, beharrezko lana (lan indarraren balioa, langilearen erreproduktzioa...) murriztuz. Honela jada lanaldiaren iraupena ez da aldatzen, beharrezko lanaren eta gainlanaren (plustrabajo) arteko banaketa baizik.

Hala ere, kapitalistak lanaldiaren iraupena luzatzen zuenean berehalakoa zen erabaki horren eta bere irabazien handipenaren arteko erlazioa. Gainbalio erlatiboan aldiz, kapitalistak bere ekoizpen indarra handituta ez du gainbalio gehiago lortuko, maila sozialean eman behar baita ekoizpeneko iraultza teknikoa. Orduan nola da posible kapitalistek beren ekoizpen indarra handitzeko joera izatea? Marxek dio lehia interkapitalistako mekanismo zehatzak ez direla darabilzkigun kategoria hauen abstrakzio maila berekoak, beraz bitartekaritza asko garatu beharko lirakeela behar bezala azaltzeko. Hala ere, ekoizpen indarrak handitzeko joera ulertu daitekeela dio. Izan ere, bere ekoizpen indarra handitzen duen kapitalistak merkantzia bakoitza bere balioaren (sozialki beharrezkoa zaion denboraren) azpitik ekoitziko ditu, ``balio indibidual`` baxuago batean. Bere berrikuntza gainerako kapitalisten artean orokortu arte bere merkantziak balio sozialaren azpitik salduko ditu, merkatua bereganatuz, eta aldi berean beren balio indibidualaren gainetik, ez-ohiko gainbalio bat lortuz (gainbalio handiagoa). Lanaren ekoizkortasuna (ekoizpen indarra) handitzen duen berrikuntza hau langileen erreproduktziorako merkantziak ekoizten dituzten (edo horiek ekoizteko ekoizpen bitartekoak ekoizten dituzten) adar produktiboetara iristen denean, langileek kontsumitzen dituzten merkantzien balioa ere murriztuko da, eta beraz baita lan indarraren balioa ere.

XI. KAPITULUA. ELKARLANA

Aurrekoa kontuan izanik, ekoizpen indarrak nola handitzen diren azaltzea da hurrengo pausua. Hazkunde hau azaltzeko lehen kategoria elkarlanarena (cooperación) litzake, eta bigarrena makinariarena (hori hurrengo kapituluaren, XIIIan). Elkarlanaren ideiak adierazten du lan indar kopuru bat batera lan egiten jartzen bada langile bakoitzak bere aldetik ekoizteko lukeen balioa baino gehiago ekoizteko dutela. Langileak talde baten baitan lan egitean (Hau da, kapitalistak tailer eta beranduago fabrika berean batzen dituztenean langileak) bere lan indibidualak batez besteko lan sozial batean bihurtzen da: ``Kapitalistak, beraz, 100 lan indar autonomoren balioa ordaintzen du, baina ez 100 horien lan indar bateratuen balioa``. Arrazoi ezberdin ugari dauden elkarlanean martxan jarritako lan indarra produktiboagoa izateko: ekoizpen bitartekoen erabilera ekonomikoagoa, ``hildako uneak`` (langilea operazio batetik betera igarotzen den unea) murriztea, espezializazioa, lan tresnen espezializazioa... Liburuan behar bezala garatzen da bakoitza, elkarlanaren kategoriarekin erlazionatuz.

Elkarlana ez da fenomeno eskusiboki kapitalista bat, baina ``lan prozesuak jasaten duen lehen aldaketa da kapitalaren baitan subsumitua denean``. Hau da, artisauak tailer berean batu eta batera lanean jartzeak lan indar eta ekoizpen bitarteko nahikoa ordaintzeko kapitalaren jabe den aktorearen beharra inplikatzeko du. ``Kapitalista ez da kapitalista industria zuzendaria izateagatik, baizik eta zuzendari bihurtzen dela kapitalista delako``. Horrek esan nahi du lan indarra eta ekoizpen prozesuaren gidaritzaren funtzioa ez dela kapitalistarena berez; are gehiago, kapitalistek askotan kontratatatu izan dituzte langile espezializatuak (gerenteak, zuzendariak...) zuzendaritza lanak egiteko. Laburbilduz, ekoizpen indarra handitzeko eta beraz gainbalio erlatiboa erauzteko metodoa litzake elkarlana, bere forma ezberdinetan hartuta.

XII. KAPITULUA. LANAREN BANAKETA ETA MANUFATURA

``Lanaren banaketan oinarrituriko elkarlanak bere figura historiko klasikoa manufaturan du (...) zeinak, gutxi gora behera, XVI. Mendetik XVIII.-era irauten duen``. Kapitalistak gremioen menpe zeuden artisau independenteak bere tailerrean batu zituen, eta ordurarte artisau bakoitzak egindako ekoizpen prozesua operazio txikietan banatzen du, langile bakoitzari funtzio zehatz bat emanda esperientziari esker bere lana produktiboago bihurtzeko. ``Aktibitate beraren errepikapenak (...)

enpirikoki irakasten du lan txikienarekin helburuak lortzen''. Lan prozesua balorizazio prozesu bilakatzen den heinean (V kapitulua) elkarlanaren abantailak manufakturan ematen dira, ekoizpen kapitalistaren forma historiko goiztiar gisa.

Abstraktuki elkarlanean eta historikoki manufakturan funtsezkoa den lanaren banaketa eta espezializazioa autore burges askok gizarte mailan (adar produktibo edo sektore ezberdinen artean) ematen den lanaren banaketarekin identifikatu dute. Marxek argi dio, biak erlazio sozial kapitalistetan era zehatzean ematen diren arren oso ezberdin ematen direla: ``Gizartearen baitan ematen den lanaren banaketa lanaren adar ezberdinek ekoiztako merkantzien elkartrukearen bitartekaritza ematen da. Manufakturan aldiz lan ezberdinen arteko lotura kapitalista berberari saldutako lan indarren salmenta da lanaren banaketaren funtsa. Manufakturako lanaren banaketak ekoizpen bitartekoak kapitalista baten eskuetan kontzentratzea inplikatzan du, gizarte mailako lan banaketak (lanaren banaketa sozialak) aldiz ekoizpen bitartekoak merkantzien ekoizle ezberdinen artean banatzea inplikatzan du''.

Lehen kapituluan aztertu genuen erlazio sozial kapitalisten funtsa merkantzien elkartruke orokortean zegoela. Hau honela ez bada ekoizpena ekoizleen kontsumorako bideratua dago orokorrean, eta lana beraz unitate baten barnean (familia, adibidez) planifikatzen da. Aldiz, espezializazioak eta elkarlanak beren puntu gorena planifikazio hori maila sozialean egiteari utzi den estadio historiko kapitalistan eman da. Izan ere, merkataritzan aritzen zen kapitalak besteen lan indarra erosteko ahalmena lortzen duenetik (IV kapitulua) tailerraren baitan lanaren banaketa berria emateko aukera ematen da.

Azkenik, Marxek manufakturak langilearentzat izandako ondorio lazgarriak azpimarratzen ditu ``Manufaktura gainbalio erlatiboa ekoizteko modu bat besterik ez da. (...) Ez du ekoizpen indarra kapitalisten alde garatzen bakarrik, gainera hau langilearen mutilazioaren bidez lortzen du''. Lana operazio sinple eta espezializatueta banatzean ematen denean langilea bere mugetaraino lan egitera behartzen da. Hala ere, erlazio sozial kapitalisten baitan manufakturak muga propio batzuk zituen kapitalak beharrezko zuen gainbalioa ekoizteko ``... manufakturak ezin zen ekoizpen sozialaz bere osotasunean jabetu, ezta hau sakonki aldatu ere. (...) garapen gradu batera iristean, bere oinarri tekniko estua berak sortutako ekoizpenaren beharrekin kontraesanean sartzen zen''. Horregatik jo beharko da makina eta industria handiaren bidez ekoizpen indarren handipenera.